

BILBertsoak

Gelaz-gela bildutako bertso bilduma

93 - 94 ikasturtea

BILBO

BIZKAIKO BERTSOLARI ELKARTEA

A U R K I B I D E A

Artxandape	Ikastola	6. maila A	2
Artxandape	Ikastola	6. maila B	3
Begoazpi	Ikastola	6. maila A	4
Begoazpi	Ikastola	5. maila B	5
Deustu	E. Publikoa	6. maila D	6
Deustu	E. Publikoa	6. maila E	7
Deustuko	Ikastola	6. maila A	8
Deustuko	Ikastola	6. maila B	9
Felix Serrano	E. Publikoa	1. maila	10
Felix Serrano	E. Publikoa	2. maila	11
Felix Serrano	E. Publikoa	3. maila	12
Gabriel Aresti	E. Publikoa	5. maila	13
Garcia Rivero	E. Publikoa	1. maila	14
Intxixu	Ikastola	5. maila	15
Intxixu	Ikastola	6. maila	16
Intxixu	Ikastola	7-8 "	17
Karmelo	Ikastola	6. maila A	18
Karmelo	Ikastola	6. maila B	19
Kirikioo	Ikastola	7. maila A	20
Kirikioo	Ikastola	7. maila B	21
Kirikioo	Ikastola	7. maila D	22
Kirikioo	Ikastola	8. mailak	23
La Salle	Ikastetxea	6. maila A	24
La Salle	Ikastetxea	6. maila B	25
La Salle	Ikastetxea	6. maila C	26
Luis Briñas	E. Publikoa	6. maila B1	27
Luis Briñas	E. Publikoa	6. maila B2	28
Luis Briñas	E. Publikoa	7. maila B1	29
Luis Briñas	E. Publikoa	7. maila B2	30
Luis Briñas	E. Publikoa	8. maila B	31
Pagasarribide	E. Publikoa	5. mailak	32
Pagasarribide	E. Publikoa	6. maila	33
Pagasarribide	E. Publikoa	7. maila	34
Txurdinaga	E. Publikoa	6. maila D	35
Txurdinaga	E. Publikoa	6. maila B HD.	36
Txurdinaga	E. Publikoa	6. maila B TX.	37
Urretxindorra	Ikastola	6. maila A	38
Urretxindorra	Ikastola	6. maila B	39
Zurbaranbarri	E. Publikoa	6. maila	40

ARTXANDAPE IKASTOLA

6. MAILA A

GURE IKASKETAK

Beti gaude ikasten
liburu aurrean,
denbora faltan ezin
jolastu kalean,
suspenditu ezker
zarata etxean,
zer nolako beldurra
notak jasotzean.

kontrolak zailak dira
hori da egia,
guztia ikasteko
behar da miraria,
eta GIZARTEkoa
dugu gehiegia,
hortxe izaten dugu
txuleta premia.

Aita! ezer ez esan
nota txarrakaitik,
hurrengo ebaluaketan
egoteko pozik,
irakasle maitea
ez bota bronkarik,
ta oporretarako
ez agindu lanik.

Lorik ezin eginda
kontrolen astean,
eta oso urduri
gelara sartzean,
ikasi eskolan ta
ikasi etxean,
zelako deskantsua
kontrolen ostean.

Ikastolara sartu
eta hasi bronkan,
andereñoan kontra
MATEMATIKETAN,
NATURA eta EUSKERAN
saiatuz benetan,
larregi ikasten da
ikastola hontan.

Maite, Marta eta Jon
ezin agoantatu,
GIZARTE eta LENGOAIAN
hainbeste apuru,
norbaitek penkatzea
hain dago seguru,
maixuak aguantatzen
lan haundia dugu.

ARTXANDAPE IKASTOLA

6. MAILA B

ANIMALIAK

Guri gustatzen zaigu
okela jatea,
amuarraina baino
txuleta hobeia,
behikia ederra da
kentzeko gosea,
gainera ematen du
guretzat esnea.

Arraultzekin jateko
dugu txorizoa,
pikilo piperrekin
txerri solomoa,
buzkantza tomateaz
oso ondo doa,
eta ez da txarrena
urdaiazpikoa.

Hainbat ta hainbat janari
baditu Euskadik,
munduan ezin leike
aurkitu holakorik,
makailo ta legatza
hartuta itsasotik,
eta gaztai gozoa
ardien eskutik.

Oiloaren arraultzak
ematen du poza,
gozokietarako
oso aproposa,
baita ere balio du
egiteko saltsa,
frijitu nahiz tortila
goxoa arraultza.

Porturik politena
hemen Bermeo da,
han harrapatzen dute
sarri makailoa,
baita ere sapoa
jateko goxoa,
guztietan onena
sardina freskoa.

Behiki eta txerriki
jateko aukera,
edozer gauzarekin
beterik platera,
hainbat gauza entzunda
tripea gose da
jatetxeren batera
goazen bazkaltzera.

BEGOÑAZPI IKASTOLA

5. MAILA A

Gurasoak etxean
josi eta josi,
eta gu ikastolan
ikasi ta ikasi.

Lehen gu bizi ginan
alboko herrian,
errekondoan dagon
baserri berrian.

Udaberria denez
hara eguzkia,
eguna luzatuaz
jatorku astia.

EXPERIENTZiko gaia
nahi genduke jakin,
HISTORIA jakitea
guretzako berdin.

Gu neska-mutikoak
ez gagoz etxean,
gu paseatzen gagoz
nerbioi ertzean.

Atzo apurtu zaigu
gure mozorroa,
etxera joateko
daukagu gogoa.

Bilbon txoriak dagoz
hegaka zeruan,
horren txori politik
ez dago munduan.

Nire etxean daukat
nahi duzun jolasa,
etor zaite nirekin
eta ondo pasa.

Asko pentsatu eta
apurtu burua,
logelan irakurten
dogu liburua.

BEGOÑAZPI IKASTOLA

5. MAILA B

LEHEN KOPLAK

Ondo pasatzen dogu
bertsoak asmatzen,
ondo dagozanean
gustora kantatzen.

Mozorrotuko gara
bihar kaleetan,
jaia egingo dogu
ihauterietan.

Ikasi ta ikasi
ekin eta ekin,
jolastu ta jolastu
etorri gurekin.

Gela honetakoak
ikasle onenak,
eta ikasten doguz
esandako danak.

Euskaldunak gara gu
Begoñazpikoak,
oso onak gara gu
bosgarrenekoak.

Bizkaia irratira
karta bat bidali,
abestu ta abestu
nahi dogu ibili.

Bertsoak nahi ditugu
ondo ikastea,
horregaitik nahi dogu
batera hastea.

Hemen ibiltzen gara
bertsoak idazten,
eta gero kalean
dirua irabazten.

DEUSTU ESKOLA PUBLIKOA

6. MAILA D

DEUSTU AUZOA

Seigarren maila da gaur
kantuz datorrena,
gogoa baitakagu
esateko dena,
inori zer delata
eskatu baimena,
Deustu auzoa baita
Bilboko onena.

Auzoa goratzeko
daukagu aukera,
ederra da menditik
erreka ertzera,
ahots ederrez kantuz
guztioz batera,
"tomateroak" gatoz
zuek alaitzera.

Pozik egoten gara
hemen gaudenean,
harantza eta honantza
jendea lanean,
Deustua kokatuta
dago Artxandapean,
Nerbioi ibaiaren
eskuma aldean.

Gure auzoko zerbait
zuei aipatzean,
pozik agertzen gara
irria hortzean,
Unibertsitatea
leku ederrean,
oso ezaguna da
mundu zabalean.

Beste zerbait daukagu
gure gogokoa.
zubiaren kontua
zuentzako doa,
gorantz altzatzen dena
dugu Deustukoa,
Portugaletekoa
baino ederragoa.

Honela osatzen da
sorta serioa,
honenbestez bertso hau
da azkenengoa,.
polit eta goxoa
da gure auzoa,
Deustuar izatea
pribilegioa.

DEUSTU ESKOLA PUBLIKOA

6. MAILA E

Pobreak garelako
gaude oso egarri,
dirua irabazteko
paperak ekarri,
gure aurpegia da
oso barregarri,
beti laguntzen gaude
guztiok elkarri.

Futbolean jolasten
dexente dakigu,
golak sartzen bederen
rekorra daukagu,
klaseko ia denak
azkarrak gara gu,
Atletik ikustean
ezin dute galdu.

Hamabiak puntuan
etxera bidea,
gurekin etortzen da
zure adiskidea,
atzo ez zen etorri
falloa berea,
berriro ez du egingo
hori da legea.

Futbolean jolasten
gu hamaika gazte
irabaziko dugu
hori esan digute,
Primeran jokatzeko
hainbeste birtute,
txarto jolastu ezkerok
irabazten dute.

Atzo entzun genuen
esandako gisan,
entzundako moduan
nahi genuke esan,
zein egi borobila
zein gezurra izan,
esango dizuegu
gaur gauean plazan.

Bilbo ekipoa da
fina eta ona,
mundu osoan dauka
fama eta sona,
liga irabaztea
gure zoriona,
ekipo indartsua
etxean dagona.

DEUSTUKO IKASTOLA

6. MAILA A

EUSKAL HERRIA

Ondo pasatzen dute
hona datozenak,
batez ere umeak
eta gazteenak,
Bilbon Marijaia eta
Iruñean zezenak,
Euskal Herrian dira
jairik alaienak.

Euskal Herrian dagoz
gauza nabariak,
nahiko politikak dira
ditugun hiriak,
erreka oso ederrak
eta baserriak,
mendi altuak eta
lautada haundiak.

Munduan izan arren
hainbat aldakuntza,
Euskera beti izan da
herriko bizitza,
euskal izaeraren
muina eta funtsa,
denetan politena
da gure hizkuntza.

Guk ere ez dakigu
gure jatorria,
aintzin-aintzinakoa
ez da ez berria,
baina oso ona da
gure janaria,
txiki eta polita
da gure Herria.

Hemen gustora dago
hondartza zalea,
marinel, arrantzale,
wind-surf egilea,
gustatuko zaizue
hona etortea,
Europar onena da
gure kostaldea.

Unibertsitatea
eta ikastola,
gauza anitz gehiago
berton ditugula,
portu haundiak eta
itsaso zabala,
bizitzeko ez dugu
ez toki makala.

DEUSTUKO IKASTOLA

6. MAILA B

GURE IRAKASLEAK

Itziarrek dakarsku
zerurako giltza,
berantzako ona da
guretzako gaitza,
erakutsi nahi digu
Jainkoaren hitza,
ITUN BERRIA eta
JESUSEN BIZITZA.

PLASTIKAN aspertuta
egiten buztinak
ez ditugu gustoko
ETIKAKo ipuinak,
nahiz eta biak izan
andereño finak,
Anabel eta Laura
oso ezberdinak.

Amerikan ikasi
bertako hizkuntza,
guregana etorritz
benetako poza,
berak uste du dela
DIANA printzesa,
baina ez dugu ulertzen
Neva-ren inglesa.

MATE kaka bat denez
guztiok izorra,
Itziarren karpetan
negatibo altxorra,
gure andereñoa
polit ta bizkorra,
altura txikikoa
baina oso jatorra.

Igorrek banatzen du
betiko "logoa"
disketea sartu ta
sortzen da giroa,
nahiz ezin kontrolatu
"dordoka" zoroa,
informatika dugu
gure gustokoa.

Iñaki nota jartzen
oso matxista da,
beti ematen digu
korrikan pasada,
jolasteko asmotan
joaten gara hara,
patioan bueltaka
mareatzen gara.

FELIX SERRANO ESKOLA PUBLIKOA

1. MAILA

Inazio, Irantzu,
Jon eta Itxaso,
izenak kantatuko
doguz pausoz-pauso.

Raul, Maiel, Oihane,
Monica eta Hodei,
Hamalagarrenari
egin diogu dei.

Ekaitz, Agustin, Aimar,
ondoren Ainhoa,
aipatu dizuegu
gure izen mordoa.

Erdoitza, Saloa ta
Aner ta Naiara
honela heldu gara
zortzigarrenera.

Alberto, Jone, Araitz,
Maitane, Nerea,
beste izen sorta bat
daukagu gordea.

Felix Serranon gure
gela edo kabi,
talde polita gara
guztira hogeitabi.

Zaratatsuak gara
asko geralako,
parea falta zaigu
dozena birako.

FELIX SERRANO ESKOLA PUBLIKOA

2. MAILA

Bigarren mailakoak
kantari gaudenak,
eskola honetako
zaratatsuenak.

Casilla inguruan
daukagu eskola,
ez dugu aldatu nahi
inondik inola.

Edonork ez du izaten
guk dugun joera,
hitz egiten dakigu
guztiok batera,

Kanta asko dakigu
dotore kantatzen,
eta oraindik-orain
gehiago ikasten.

Kantatu nahi ditugu
kopla hauek zuekin,
eta amaitzen dugu
bosgarrenarekin.

FELIX SERRANO ESKOLA PUBLIKOA

3. MAILA

Munduan ez da guk ez
dakigun kanturik,
hortarako ez dugu
falta talenturik.

Kanta kontuan gara
katedratikoak,
ahots ederrarekin
gazte majikoak.

Dozenako hamahiru
ematen ditugu,
izan ere holako
artistak gara gu.

Ahalegindu gabe ez da
gauza asko jakiten,
laster jakingo dugu
bertsoak egiten.

Hemen iharduten gara
ahalegin betean,
bertsolari gaituzu
datorren urtean.

Hara hor gure gelaz
beste hainbat datu,
berrehun doinu jakinda
hirurehun asmatu.

Aurrera jarraitzea
nahi genuke sendo,
egiteko zortziko
txikian hurrengo.

GABRIEL ARESTI E. PUBLIKOA

5. MAILA

Irakasleak guri
sartzen digu trola,
eta gainera beti
hilerok kontrola.

Denok egoten gara
oporretan ondo,
eta gainera eskolan
ez gara egongo.

Irakaslea dago
euskera emoten,
baina guk ez dakigu
isilik egoten.

Txoria polita da
kantari hastea,
polita da euskera
ondo ikastea.

Umeak ikastolan
gogotsu lanean,
etxera joan eta
lo egin gabeen.

Oporrak hartu eta
eskolakin ahaztu,
Donostiara joan
eguzkia hartu.

Oso azkarrak gara
ikasten urtero,
asko jolasten dugu
abestuta gero.

Bosgarren mailakoak
Errekaldekoak,
koplak egin ditugu
geure gogokoak.

GARCIA RIVERO ESKOLA PUBLIKOA

1. MAILA

Lehenengo mailan gaude
euskera ikasten,
ahal dugun neurrian
kantuak ikasten.

Alde zaharrear dago
eskola polita,
tren geltoki zaharrear
ondoan jarrita.

Guk ataratzen dugu
hainbeste zarata,
beti egoten gara
kanta eta kanta.

Gela polita da guk
hemen daukaguna,
pozik pasatzen dugu
guk hemen eguna.

San Antongo zubia
ez dago urruti,
bertatik ibiltzen da
jende asko beti.

Hainbat kanta dakigu
baina ez da asko,
ikasiko ditugu
oraindik gehiago.

INTXIXU IKASTOLA

5. MAILA

SASKIBALOA

Saskibaloia oso
entretenigarri,
aburritu guztiak
gurekin etorri.

Kirol mota honetan
geu gara nagusi,
bosgarren mailakoak
beti irabazi.

Animoz jantzi eta
aurrera gaztea,
garrantzitsuena ez
da irabaztea.

Intxixukoak beti
irabazten dute,
Sabonis-ek ez daki
guk dakigun beste.

mantendu nahi duenak
gorputzan sasoi,
kirolik politena
du saskibaloia.

Seigarrenekoekin
izan dira demak,
puzkertu hutsak dira
geu gara onenak.

Saskibaloia ona
gazte guztientzat,
eta ez da txarrena
ere zaharrentzat.

Saskibaloia oso
deporte noblea,
bista ona behar da
punteri hobe.

INTXIXU IKASTOLA

6. MAILA

NATURA

Telebistaz diote
zaindu gure ura,
nahiko txarto zainduta
daukagu natura,
industria nagusi
zer nolako guda,
guzti hau aldatzeko
ordua heldu da.

Egungo egoera
ezin da sinetsi,
animaliak hiltzen
eta lotsa gutxi,
kontsigna bat emoten
nahi genuke hasi,
"mundua garbi hartu
eta garbi utzi"

Zikinkeri guztiak
beti errekarra,
garbi garelakoan
zikin hutsak gara,
kutsadura heldu da
ozono kapara,
horrela jarraituta
dena pikutara.

Gure mundua doa
onetik txarrera,
urak zikintzen eta
paperak lurrera,
aldatu behar dugu
gaurko egoera,
Lurra salbatu ote
hori da galdera.

Ez dira ez lasaiak
egungo garaiak,
hiltzen hasiak dira
itsasoko arraiak,
horrela jokutzen du
gizaki ziztrinak,
etxeak garbi baina
kaleak zikinak.

INTXIXU IKASTOLA

7. ETA 8. MAILAK

URTE OSO HONETAN
ISILIK AHOA,
KOPLATAN ARITZEKO
GENUEN GOGOA.

Steven Spielberg-ek
nolako ideia,
dinosaurioak dira
zientzia berria.

Carmen Sevilla bada
apur bat traketsa,
bere zuzendariak
pasatzen du lotsa.

Ikusi al zenuten
atzo iragarkia,
bi ordutakoa zen
ta erditik filmia.

Athletic ondo dabil
azken liga hontan
kontutan hartzekoa
Gerrero benetan.

Benetan dago txarto
gure telebista,
nahiz eta konturatu
ikusten dugu ta.

Gu gobernu honekin
nora ailegatu,
euskera ukatzen du
ezin agoantatu.

Kaletik doaz neskak
dena erakusten,
eta zaharrak berriz
gustora ikusten.

Oso garrantzitsua
euskera Euskadin,
gobernuak egin beza
hamaika ahalegin.

KARMELO IKASTOLA

6. MAILA A

JANTOKIKO JANARIA

Kantatzera goaz gu
sorta egokia,
jantokia delarik
horren aitzakia,
ez dugu gustokoa
hango janaria,
astindu nahi genuke
gure jantokia.

Jantokiko umeak
gaude nekatuak,
hil ote nahi gaituzte
andre nazkanteak,
ulertu ezazue
jantokiko neskak,
angulak nahi ditugu
baita ere patatak.

Berdura eta arraina
gure jantokian,
askoz txarrago dago
aspaldi honetan,
arrain erdi ustela
asteen birritan,
Donut-ak nahi ditugu
ostiral guztitan.

Berdurak eta babak
ez daude oso onak,
txarrenetan txarrenak
dira espinakak,
purea ta arrainak
gainera indabak,
arroza ona baina
beste gauzak txarrak.

Hemen jaten duguna
da nazkagarria,
jateko modukoa
bakarrik ogia,
esandako guztia
izanik egia,
osasunarentzako
ez da egokia.

Gosez sartu barrura
eta gosez urten,
janari egokirik
ez digute ematen,
sasoian egon arren
gu ez gara hazten,
aspaldian ez dugu
gauza onik jaten.

KARMELO IKASTOLA

6. MAILA B

KIROLA

Kirol gaietan egin
nahi dugu garrasi,
Euskal Herrian horrek
ez al du merezi,
guztietan txapeldun
TAUGRES da nagusi,
saskibaloiko liga
berak irabazi.

Euskaldunak jaiotzez
da kirol zalea
herri kirolak dira
horren seinalea,
futbola da oraingoz
kirol erregea,
denok parte hartzea
da gure legea.

Geuk ere egiten dugu
kirola nabarmen,
garrantzizkoa ez da
hoberena nor den,
onena jokatzeko
han, hor eta hemen,
nahiz eta ondo ez egin
saiatu bederen.

Kirol zaletasuna
ugaltzen ari da,
parte hartzea hobe
ta ez egon begira,
esku-pilotan hasi
ta saskibaloira,
gure kirolariak
hoberenak dira.

Kirol zaletasuna
euskaldunok dugu,
aspalditik baikara
munduko eredu,
talde kirolak edo
berdin buruz buru,
Herri kirolak ere
gustoko ditugu.

Zesta puntara edo
esku pilotara,
izerditan jartzeko
apuntatzen gara,
asko nekatu arren
ez zaitez ikara,
kirola egitea
osasuntsua da.

KIRIKIÑO IKASTOLA

7. MAILA A

Klasean asko ikasi
gehiago etxean,
egun-sentia ezker
hasita lanean,
penkatzeko beldurra
gorputzan sartzean,
urduri jartzen gara
kontrola egitean.

Gu ez gagoz konforme
inondik inola,
eta berotzen jaku
barruan odola,
egunero aguantatu
itzelezko trola
eta horrez gainera
hilero kontrola.

Irakasle txar honek
lanez gaitu lehertu,
gero gabaz etxean
lorik ezin hartu,
zertako hainbat galdera
eta txilibitu,
irakasleak zeinek
kontrolatzen ditu.

Asteburua amaitu
gero astelehen,
Maria Luisa hasi da
guztiok aztertzen,
kakalarri gabiltza
kontrola baino lehen,
hainbat ikasi eta
ez dogu gaingaitzen.

Galderak jakiteko
urduri ta penaz,
beti haserretuta
irakasleagaz,
amaitu ondoren be
guztiok dardaraz,
emaitza jakiteko
gogo biziagaz.

KIRIKIÑO IKASTOLA

7. MAILA B

IRAKASLEAK

Kontrolak penkatzean
malko ta negarra,
lan ona izateko
ikasi beharra,
ez badozu ikasten
etxera oharra,
kurtsoa gainditzeko
sufritu behar da.

Zueri irakasten
ia urte-bete,
beti uzten dozue
ingles edo mate,
ikasi dezazuela
lanean jo ta ke,
parkatu baina oso
alperrak zarete.

Dena aprobatzeko
lana egin etxean,
ta ondo ibiliko
zarete klasean,
zuen pentsamentuak
beti jolasean,
umetxoen antzera
txoriak buruan.

IKASLEAK

Motxilak bete-bete
daukaguz etxean,
lan guztiak amaitzen
mila ordu lanean,
ikasten gaude beti
inoiz ez kalean,
gu esklaboak gara
maixuen menpean.

Etixerako lan asko
daukagu biharko,
eta lana daukagu
gabe guztirako,
ez badoguz egiten
nota etxerako,
ez dago deretxorik
hori egiteko.

Zuen eskuetatik
zaplastadak hartu,
hori dela medio
izarrak ikutu,
irakasleen gelan
kafe beroa hartu,
golperik jo ez eta
ganera kobratu.

KIRIKIÑO IKASTOLA

7. MAILA D

URTAROAK

Txoritxoak kantari
zuhaitzen gainean,
ur tantoak gordeak
hodeien barnean,
loretxo txikitxoak
zelai apainean,
maitasuna nagusi
da udaberrian.

Udara azkenean
haizeak bisita,
gorputzean freskoa
bufanda jarrita,
hosto marroi zimurrak
lurrera jausita,
berdea galdu eta
marroiez jantzita.

Udaberri garaiak
txori kantariak,
udan izaten dira
gure oporraldiak,
udazken ta neguan
margotu zelaiak,
oso politak dira
urtaro guztiak.

Oporretan joateko
daukagu baimena,
ikastola itxita
hau da zoramena,
klaseko diziplina
ahazten zaigu dena
uda da guretzako
urtaro onena.

Neguak be baditu
bere gauza onak,
inozente egunez
elkarrentzat bromak,
olentzeroa eta
baita zorionak,
kaleak zuri-zuri
badatoz gabonak.

Lau honetxek ditugu
urteko faseak,
bakoitza osatuaz
hiruhilabeteak,
batzuk hotzak badira
besteak beroak,
guztiak lotu eta
hor dugu urte bat.

KIRIKIÑO IKASTOLA

8. MAILAK

Negu egunak amaitzen dira
guztiok goaz poztera,
ume txikiak eta txoriak
lora artean jolastera,
gizon eta andre, zuhaitz azpian
joango dira maitatzera,
eta guztiok igaro dugu
udaberria batera.

Negua dago amaitzear ta
denbora txarra badoa,
laister gugana etorriko da
guztiz berri dan aroa,
zelaiak, landak, baratzak eta
loreak usain goxoa,
udaberria urreratzean
eguzkiak du beroa.

Gure ikastolak antolatzen du
urtero euskeraz bizi,
eta emaitza zelakoa dan
daikezu ondo ikusi,
euskera maite dogu guk baina
ez dogu ezer adierazi,
euskera egiten hasiko gara,
nahi ez dabenak ihesi.

Kantuz agertu gara
lehenengoz hemendik
bertsoetan ez jaku
faltatzen kemenik,
inongo txapeldunak
ez gara oraindik,
baina ez dogu uste
txarrenak garenik.

Kaletik ikusi nuen
neska horren dizdira
alboko mutil denak
berari begira,
neska, posturatxoak
ipintzen ari da,
ta alboko guztiak
zoratu egin dira.

Gu bertsoetan ez gabiz
ez ondo ez trebe,
baina nerbioak kentzeko
izan behar jabe,
bertso honeek ez doguz
egin pentsa gabe,
baina amaitzen badogu
guretzako hobe.

LA SALLE IKASTETXEA

6. MAILA A

La Salleko gazteak
kantari dotore,
botatzen dizuegu
zuei hainbat lore.

Bertsotako orduan
kanta hamar bider,
hamarretik zortzitan
txarto edo oker.

Gaur goizean klasean
maisua haserre,
bronka bota digu ta
orain denok barre.

La Sallekoak beti
kantatzeko gogoz,
eta entzule denak
alaitzera gatoz.

Txakurrak beltzak dira
elurra zuria,
basamortu lehorrak
behar du euria.

Ez dugu gauza asko
kamioi bat bakarrik,
hor zehar goaz beti
ez dago holakorik.

Hertzainen "Aitormena"
oso kanta fina,
asmatu nahi genuke
holako berdina.

Kopla txiki politok
ez dira gehiegi,
kantu gehiago ikasten
nahi genuke segi.

LA SALLE IKASTETXEA

6. MAILA B

San Pedroko eleizan
hamaika enara,
zelaietan loreak
udaberria da.

Deustuko jaietara
bihar joango gara,
barraketan montatuz
ondo pasatzera.

San Jose egunean
herrian ginanez,
bildotsa erre eta
jan genuen errez.

Gaueko hamarretan
izan gara kapaz,
aitari esateko
irtetzeko gabaz.

Bertsoak idaztean
La Sallek du hitza,†
pentsatu eta gero
dantzatu lapitza.

Koplak kanta eta kanta
pozik gaude hemen,
baina gure maixua
ez dakigu nor den.

Apaingarri ugari
apaitzeko jaia,
Deustu auzoan dugu
oso festa alaia.

Gaueko zortziretan
jertseia daroa,
kanpoan hotza dago
etxerantza noa.

LA SALLE IKASTETXEA

6. MAILA C

Kitarra jotzen dugu
azkar eta gogor,
sentimentu jatorra
barrenetik dator.

Lorez beterik dago
zelaia mendian,
kantari hasi zaigu
kukua herrian.

Bilboko ikasleak
ditugu aurrez aurre,
txarto kantatu arren
guri ez egin barre.

Gure ikastetxean
dago iturria,
oso zaharra denez
ekarri berria.

Oso kanta polita
kantatzen duguna,
Euskal Herri guztian
oso ezaguna.

Gure bihotzak daki
zelan gauden triste
ikastetxetik kanpo
botako gaituzte.

Non daude tximeletak
ez daude zelaian,
mendira jotzen dute
udara garaian.

Ez dakigu non gauden
galduta basoan,
ezer ere jan gabe
gaur egun osoan.

LUIS BRÍÑAS ESKOLA PUBLIKOA

6. MAILA B 1

EUSKARA

Gure auzoa ez da
holako txikia,
alderantziz haundia
eta berezia
denok egin dezagun
ahalegin bizia,
euskaldun izan dedin
Santutxu guztia.

Azken urte hauetan
gorantza euskara,
hori horrela denez
gustora algara,
burua agertuaz
kantari plazara,
santutxuarrak eta
euskaldunak gara.

Zaharrak eta umeak
eta gaztetxoak,
euskaldun izateko
ditugun gogoak,
guztiok batzen gaitu
hemengo giroak,
saiatzen gara behintzat
Luis Briñasekoak.

Alaitzeko motibo
asko da gaur egun,
hizkuntzaren borrokan
denok gara lagun,
jo eta ke lanean
egunero ihardun,
gure hizkuntza zaharra
ikasi dezagun.

LUIS BRÍÑAS ESKOLA PUBLIKOA

6. MAILA B 2

OPORRAK

Bertso multzo honetan
guztia esango,
kontroletan "zero" eta
gutxitan gehiago,
eskola baino zer da
aspergarriago,
klasean txarto baina
oporretan ondo.

Neguan jeiki behar
zazpi t'erdietan
eta makar ugari
gure begietan,
udan jeikitzen gara
egun guztietan,
lo nahikoa eginda
goizeko hamarretan.

Oporrak etortzea
guretzako hobe,
kalean jolasteko
hortarako daude,
burua apurtu gabe
gu hobeto gaude,
eta irakasleak
agoantatu gabe.

Udan egon gaitezke
jesarrita lasai,
Mallorca-n oporretan
ondo pasatu nahi,
neguan triste eta
udan oso alai,
jolastu ta jolastu
egun guztian jai.

Bainu jantziarekin
libreak sentitzen,
amak lan gutxiago
erropa garbitzen,
eta gu itsasoan
igeri egiten,
Coca Cola edanda
eguzkia hartzen.

Orain hamarretako
gara oheratzen,
jolaserako ez dugu
astirik izaten,
oporretan digute
gurasoak uzten,
gabeko pelikula
guztiak ikusten.

LUIS BRÍÑAS ESKOLA PUBLIKOA

7. MAILA B 1

PEDRO BIXENTE
BIXENTE PEDRO
MOZKORRA HARRAPATZEN DA
EDAN EZKERO.

Libek ematen digu
bertsoen klasea,
ez badugu egiten
ixten du atea.

Neuk erosiko dizut
liburu berria,
baldin et ez bada
oso garestia.

Aprobatzen badugu
guztio txaloka
oporretara pozik
joango da Gorka.

Bertso anitz eginez
nota ona dugu,
baina ez dio inportik
ederto gaude gu.

Goizean liburua
behar zen ekarri,
leloena egiten
ez zaotez ba jarri.

Bihar kontrola dago
ikasi behar duzu,
bestela oso zaila
gertatuko zaizu.

Karmeleanora zoaz
Joxe Manuelekin,
neure etxera noa
nahi baduzu jakin.

LUIS BRÍÑAS ESKOLA PUBLIKOA

7. MAILA B 2

GABONAK

Hotza eta elurra
janari gaziak,
egun hauek guretzat
dira bereziak,
Olentzero abesten
zahar eta gaztiak,
zuhaitzean jarriak
opari guztiak.

Oporrak direlako
gaude oso pozik,
ez dugu ezer ikasten
ondo pasa baizik,
denborarik gehiena
azterketak ezik,
gutxi ikasi eta
jolasean kasik.

Liburu zahar denak
utzita albora,
eskolako gauzarik
ez dator gogora,
beti honela balitz
guretzako hoba,
ez goaz eskolara
inondik inora.

Gabonak dira eta
zeozer espero,
opariekin dator
gure Olentzero,
sutondoan jarrita
dago bero-bero,
etxean sartu eta
ondo janez gero.

Zeru altuan daude
hainbat izar bitxi,
hoiei begira erne
dago gure Urtzi,
opari asko dio
Olentzerok utzi,
gehiegi dauka eta
beharrizan gutxi.

LUIS BRÍÑAS ESKOLA PUBLIKOA

8. MAILA B

Kanpora joateko
gaude beldurturik,
etorriko zaigunak
gauzka kezkatu-
rik, gaur elkarrekin gaude
bihar banaturik,
ez al gara egongo
apur bat galdurik.

Oso gutxi falta da
dena bukatzeko,
bakoitza bere aldetik
kanpora joateko,
hemen bezala lagun
prest gaude izateko,
eta batuko gara
ondo pasatzeko.

Pentsatu gabe gaude
gaur denok bertso-
tan, polita deritzogu
ta gabiltz benetan,
idatzi ta idatzi
hemen paperetan,
lehenengo idatzian
gero puntuetan.

Batzutan izan arren
nahikoa astunak,
badakigu izaten
jator ta bigunak,
maisuekin ditugu
pasatzen egunak,
zergaitik etsai izan
gaitezen lagunak.

Elkar agurtu nahirik
denok gaude alai,
zerbait oparitzeko
diru apurra nahi,
bakoitzak erosi du
opari asko bai,
banatu nahi ditugu
baina ez nolana-
hi.

Entzun izan ditugu
hainbat bertsolari,
beraiei esker gara
gu ikasten ari,
saio bat nahi izanez
deia egin guri,
nolakoak garenik
ez esan inori.

PAGASARRIBIDE ESKOLA PUBLIKOA

5. MAILA A eta B

IHAUTERIAK

Aurten mozorrotzeko
daukagu aukera,
Ihauteriak dira
goazen ospatzera.

Mozorroak egiten
gau ta egun osoak,
disfrazatu ta gero
gu ginen presoak.

Gero otu zitzaigun
haxe egitea,
orkatilarari lotu
bola ta katea.

Preso jantzirik eta
oihuka ta alai,
"ETXEKO LANAK KENDU
GUK EZ DITUGU NAHI".

Ostegun gizenak du
bere garrantzia,
saltxitxa eta txistorra
txitxiburduntzia.

Gure jantziak zeukan
buruan kapela,
dena marraz beterik
presoak bezela.

Kanpora joan ginen
egiten protesta,
ta zabaldu genuen
kalean pankarta.

Eta kopla hauekin
goaz bukatzera,
agur esaten dugu
guztiok batera.

PAGASARRIBIDE ESKOLA PUBLIKOA

6. MAILA

Julen ospitalera
doa berehala,
futbolean jolasten
ez da ez makala,
ondo daki jolasten
eta sartzen gola,
sinistu egizue
hori hola dala.

Gu partidua goaz
ikustera aurten,
Barsa-ri irabazteko
halakoren baten,
Liga ataratzeko
dira ahalegintzen,
azkeneko aldia
polita izan zen.

Gure eskola maitea
nahi genuke aipa,
Larraskitu bidean
dotore jarrita,
San Adrianetik gatoz
ikastera eta,
eskola zaharra baina
benetan polita.

Eskolara bidea
zubitik batzutan,
denok kontu kontari
eta berriketan,
txangoa izaten dugu
urtean birritan,
bidea egiten dugu
elkarri bertsotan.

Baserritar gazte bat
hirira joan baina,
behia erosi zuen
baita ere engaina,
etxera joateko
zer buruko mina,
gero aitak egin zion
haserre haundina.

PAGASARRIBIDE ESKOLA PUBLIKOA

7. MAILA

IHAUTERIAK

Oso pozik gaudenez
hauxe da aukera,
guztiok elkartuta
pozik jolastera,
txorizoak jatera
etorri eskolara,
ihauteriak dira
goazen goatzera,

Ondo gelditzen zaigu
punkien jantzia,
larruzko prakak eta
ilea gorria,
txorizoa ona dago
baita ere ogia,
gure gustokoa da
txitxiburduntzia.

Hemen gaudenok gara
zazpigarrengoak,
mozorrotuta daude
gure andereñoak,
oso politak dira
gure mozorroak
punki jantzita goaz
Pagasarrikoak.

Pozik egoten gara
honako egunetan,
jendearen gustoa
da aurpegietan,
musikakin dantzatzen
jendea kaletan,
ondo pasatzen dugu
ihauterietan.

Txirrina jo dute ta
norbaitek bisita,
gizon bat etorri da,
menditik jeitsita,
hainbat barre egin dugu
bera ikusita,
Pagasarriko artzaina
abade jantzita.

Punkiak izateko
geneukan gogoa,
jantziak egiteko
denbora mordoak,
seigarren bertsoa ere
amaitzera doa,
ez ote da polita
gure mozorroa.

TXURDINAGA ESKOLA PUBLIKOA

6 MAILA D

KOPLA SALDA

Klase honetakoak
gaude adi-adi,
paper eta arkatza
guztiok koplari.

Aurreko urteetan
kanta eta kanta,
baina aurtengo hontan
ezin dugu aguinta.

Naturako kontrola
gaur daukagu baina,
kopiatur maixua
nahi dugu engaina.

Aspergarria denez
zertako ikasi,
liburuak baztertuz
jolasean hasi.

Gurea izango da
sorta politena,
eskolan ikasia
da dakigun dena.

Asko guztatzen zaigu
telea gauean,
baina gero eskolan
logura goizetan.

Hainbat ta hainbat doinu
daukagu buruan,
jarraitu behar dugu
jo ta ke kantuan.

Ikastoletan daude
futbolari onak,
onenetan onenak
Txurdinagakoak.

Ipurdia ikutzeko
ditugu gogoak,
oso berdeak gara
seigarrenekoak.

Politena ez bada
ez dio inporta,
honela amaitzen da
gure koplata sorta.

TXURDINAGA ESKOLA PUBLIKOA

6. MAILA B HD.

KUTSADURA

Garai bateko Bilbo
ederra akabo,
ibai eta kaleak
garbiak lehenago,
baina gaur egun daude
zikinak zeharo,
gure hiri guztia
kutsatuta dago.

Kutsaduraren etsai
naturaren lagun,
guztiok elkartuta
garbitu ditzagun,
daukagun zibismoa
hortxe da ezagun,
kutsaduraren aurka
borroka dezagun.

Ibaian egoera
ezin dugu uka,
gure hondakinekin
dena beltzituta,
kaio eta arrainak
ere aldentuta,
zikinaren zikinez
"nerbioa" galdua.

Kutsadura horretaz
dugu esateko,
ahalegindu behar gara
hori konpontzeko,
motibo bat gehiago
dugu kezkatzeko,
airea kutsatuta
dago arnasteko.

Ia ez gara hemen
bizitzeko gauza,
aspaldian baikara
kutsaduraz pasa,
zulatu omen dugu
ozono geruza,
daramagun martxa hau
ezin leike luza.

TXURDINAGA ESKOLA PUBLIKOA

6. MAILA D TX.

Amamaren herrian
lainoak zeruan
ez du elurrik egin
aurtengo neguan.

Porru eta tomate
alboko baratza,
baina etzaigu gustatzen
guri berakatza.

Logurez joaten gara
denok eskolara,
eta hamabietan
etxera jatera.

Planak egin ditugu
Kuba-ra joateko,
hila-bete falta da
oporretarako.

Leihotik ikusten da
kanpoko izotza,
etxean geldituta
sutondoan goza.

Eskolara joateko
ordua heldu dela,
amak esan dit eta
noa berehala.

Atzo ikusi genuen
txoria aidean,
eskolatik irten da
etxera bidean.

Apurtu dizkigute
jolasteko plana,
jarri digutelako
etxerako lana.

URRETXINDORRA IKASTOLA

6. MAILA A

FESTAK

Ekaina eta gero
festetan egongo,
ikastolan ez dugu
golperik emango,
orain kalera goaz
ondo pasatzeko,
eskolan txarto baina
oporretan ondo.

Urtero joaten gara
euskal jaietara,
zapatilak jarrita
zapia lepora,
kaleetan gabilta
hona eta hara,
aurten joango gara
San Ferminetara.

Arratsaldeetan jai
eta oso alai,
festa maitatzen dugu
Bilbon edo nonahi,
barraketan gabilta
eta jolastu nahi,
hobe genuke balitz
urte guztia jai.

Pozik ibiltzen gara
gazteok jaietan,
lagunekin kalean
goizeko ordu bitan
orain dela bi urte
mozkortu egin ginan,
eta etxeratzen gara
goizeko lauretan.

Giro ederra dago
beti Iruñean,
ondo ibiltzen da han
mozkortien eran,
gauetz parranda eta
jarraitu goizean,
korritzea nahi dugu
zezenen aurrean.

Hirietako jaiak
pozez gozatuko,
Bilbo, Donosti, Gazteiz,
eta Iruñako,
azkenerako gazte
denok amaitzeko,
neka-neka eginda
Irailerako.

URRETXINDORRA IKASTOLA

6. MAILA B

BILBOKO JAIAK

Gure festak hasteko
gogoz gaude ia,
laister helduko al da
udara garaia,
ondo pasatzen dugu
hori da egia,
jairik ederrena da
Aste Nagusia.

Bertora etortzen dira
zahar eta gazte,
zezenak ikustera
iloba ta aitite,
geuk ere igazkoan
bertan hartu parte,
zezen mantsoegiak
ekartzen dituzte.

Jaietan gertatzen da
hainbeste komedi,
hiritar gutxi eta
kanpotar ugari,
Bilbora etortzen da
jendea larregi,
baina horrela bada
hala izan bedi.

Gogoa izaten da
asko jolasteko,
eta nahi dugun dena
bertan egiteko,
festak ditugu eta
ondo pasatzeko,
dirua behar dugu
barraketarako.

Jada nagusituak
hamaika urte aurten,
joatea nahi dugu
kontzertua entzuten,
zergaitik ez digute
hori guri uzten,
gurasoak mesedez
guri utzi joaten.

Hemen izaten dira
gertaera itzelak,
bisitatzen gaituzte
OVNI espazialak,
kolorez horniturik
zeruko hegalak,
oso politak dira
su artifizialak.

ZURBARANBARRI ESKOLA PUBLIKOA

6. MAILA

DINOSAURIOAK

Ikusgarriak dira
dinosaurioak,
Spilverg-en filmean
agertutakoak,
guztiak arraultzatik
sortu edo jaioak,
txiki eta haundiak
denetarikoak.

Gizona bizitzeko
ez zen giro edarra,
hemen nagusi baitzen
Triceratos txarra,
okela jaten zuten
baita ere belarra,
Iguana txikia zen
baina oso azkarra.

Holakoez beterik
gure parajeak,
txiki-txikiak eta
baita giganteak,
batzuak arrak eta
besteak emeak
belarjaleak eta
haragi-jaleak.

Sama luze-luzea
Brakiosaurioa,
Pterodaktiloa
oso serioa,
eta Triceratos-a
berriz potoloa,
Haunditan haundiena
Tiranosaurioa.

Orduan gizakirik
etzen existitzen
baina gero apurka
hasi ziren galtzen,
oraindik ez dakigu
garbi zer pasa zen,
orain milaka urte
denak galdu ziren